

Funtsezko baliabideak

Oinarrizko errekurtso batzuk ezinbestekoak dira edozein proiektuk era onean jardun dezaten. Gure enpresaren funtsezko baliabideak, funtsezko bazkideen harremanetan eta finantza baliabideetan oinarritzen da.

Funtsezko bazkideen arloan aipatu dugun bezala, oso garrantzitsua zaigu gure produktua aurrera eramateko, ekoizteko behar ditugun lehengai eta diseñu aholkularitza ona izatea. Horretarako, langile batzuk arituko dira enpresa hauekin itunak sortzen guztion ongizatea bermatzeko xede nagusiarekin.

Langileriari dagokionez, lantaldeak arlo ezberdinetan banatuko ditugu. Adibidez, jostunak, diseinatzaileak, webgunea kudeatzen dutenak, etab. Azkeneko hau bezeroarekin internet edo sare-sozialen bidez harremanetan egoteko.

Tresneriak beste enpresa batzuei erosiko dizkiegu; hala nola, josteko makinak, inprimagailuak, ordenagailuak, papertegizko produktuak, etab. Garantia epe-luzeko produktuak erosten saiatuko gara, produkturen bat gaizki ibiliz gero, galerak ekiditeko.

Finantza baliabideak lortzeko, gure aurrizkiak erabiliko ditugu proiektuak eragiten dituen gastuak bermatzeko. Larri ibiliz gero, maileguren bat eskatuko genioke banketxe bati, baina hasiera batean ez daukagu hori geure planen artean.